



EKINTZA, ERALDAKETA SOZIAL ETA PERTSONALA BULTZATZEKO, ETIKA OINARRI HARTUTA

Arlo orokorra

1 >

Urtearen hasieran «2019 INDARGUNEA BIZIKIDETZA- ETA BERRADISKIDETZE-KULTURA BERRI BATERAKO» argitalpena plazaratu genuen. 2018. urtean, "Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala" egin zeneko 70. urteurrena ospatu zen, eta haren egoerari, kontraesanei eta potentzialtasunari buruzko gogoeta egitea izan zen indargunearen muina. Gogoeta Giza Eskubideei buruzko hitzaldi ziklo batera eraman zen. Zikloa Baketiketik eta San Telmo Museoak antolatu zuten, elkarrekin, urte guztian zehar. Hori horrela, 2019ko Indarguneak zubi-lana egin nahi izan du 2018ko Indargunearen eta hitzaldietan ikasi genuenaren artean, helburu garbi batekin: gaur egun Giza Eskubideen egoerari, kontraesanei eta potentzialtasunari buruzko zenbait konklusio ateratzea. [Jaitsi hemen PDFn](#).

Bake eta bizikidetzaren arloa

Adiorik Gabe terrorismoaren eta motibazio politikoko beste indarkeria batzuen biktimak aitortzeko ekimen artistikoa da, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuak bultzatu zuena. Hiru urteren ondo-

2 >

ren, ekimenaren legatuduna den Donostiako Udalak edizio berri bat sustatu zuen 2019ko apirilean. Baketik, Ereiten Kultur Zerbitzuak erakundearekin batera, proiektuaren koordinazioan eta lanketan parte hartu zuen. Edizio honetan Gladys del Estal Ferreño, Jose María Elicegui Díez eta Jose Francisco Arratibel Frutos ekarri ziren gogora, diziplina anitzetako artistek sortutako piezen bidez. Zehazki, Koldo Almandoz, Olatz Beobide, Juantxo Zeberio eta Aiert Beobide izan ziren zuzendari artistikoak. Ekitaldia Donostiako parte zaharreko Antzoki Zaharrean izan zen, 2019ko apirilaren 6an. ([ikusi ekitaldia hemen](#))

3 >

Proiektuaren koordinazioaz gain, Baketiken ardura izan zen Adiorik Gabe esperientzian oinarritutako unitate didaktiko bat sortzea batxilergoko eta unibertsitateko ikasleei zuzenduta.

4 >

Urtarrilean Baketik bake- eta bizikidetzaren proiektuen urteroko zikloa hasi zuen Gipuzkoako 8 herritan, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako "Bizikidetzaren lantzen" programaren baitan. Proiektu hauek elkarriketa eta entzuketaren bultzatzea eta bizikidetzaren eta berradiskidetzaren sustatzeko ekintzak garatzea dute helburu.

5 >

Programa honen baitan, Lasarte-Oriako Udaletxeak Baketikekin batera "[Bizikidetzaren lantzen](#)" jardunaldiak antolatu zituen, urtarrilaren 16, 23 eta 30ean. Programazioak honakoa hartu zuen baitan: "S(u/a) minetik bakera" ikus-entzunezko proposamen eszenikoa, "In dialogue" dokumentalaren emanaldia eta gazteria eta transmisioaren inguruko mahai-inguru bat.

6 >

Elgoibarren, "[Memoria eta transmisioa](#)" izenburupean, hurrengo programatu zen otsailaren 19 eta 26an eta martxoaren 6an: "Bizimiñak" antzezlan, gazteria eta transmisioaren inguruko mahai-inguru bat eta "Biñetetan gordetako historia" izeneko beste mahai-inguru bat.

7 >

Bergaran "[Bizikidetzaren jardunaldiak](#)" antolatu ziren: martxoaren 14an Bizimiñak antzezlan eta 21ean "In dialogue" dokumentalaren zine-foruma.

8 >

Elkartasun arloa: Izeba Proiektua

Sehileko honetan zehar, Izeba Proiektuak hazten jarraitu du. Adin-txikiko pertsona tutelatuen eta pertsona edo familia boluntarioen arteko 9 harreman berri ezarri dira.

Sehileko hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean dauden adin txikiko pertsona tutelatuen eta familia edo pertsona boluntarioen arteko 55 harremanekin amaitu dugu. Gainera, 79 gaztek harremana mantentzen dute euren Izeba familiarekin, Aldundiaren babespean jada ez dauden arren. Hala, Izeba familia handia 144 harremanetan da gaur egun.

Aldi honetan, 17 pertsona edo familia berrik egin dute bat Izeba Proiektuarekin; boluntario hauek zaurgarritasun egoeran dauden adin-txikikoen harrerarako izeba-osaba papera edukitzeko prest dauden pertsonak, bikoteak edo seme-alabadun familiak dira, besteak beste.

Formakuntza arloa

9 >

Aniztasun kulturalaren eta familiarren inguruko 2 tailer egin dira. Mundu konplexu eta anitzean bizi garela aitortzeko beharretik abiatzen da tailer hau, mundu hobea bat eraikitzeko errealitate honetara modu eraikitzailean moldatu behar garela berretsiz. Tailer hauetako bat urtarrilaren 19an egin zen Iruñeako Planetarioan eta dozena bat funtzionario eta sailtako arduradunei zuzenduta egon zen, sentsibilizazio mintegi baten baitan: "Arrazismoaren, xenofobiaren eta bestelako intolerantzien prebentzioa eta detekzioa ikasgelan". Bigarren tailerra ekainaren 19an egin zen Eskura-k antolatutako giza eskubideen baliabide pedagogikoen azokaren baitan, beste dozena bat partaiderekin.

Hezkuntza arloa

10 >

Sehileko honetan Baketik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Departamentuarekin eta Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Kooperazioaren Idazkaritza Orokorrarekin elkarlanean jarraitu du, biktima hezitzaileen testigantzen Adi-adian ekimenean parte hartuz biktimen aurrez aurreko testigantzak erraztuz. Guztira biktimen 35 saiotan aritu gara laguntzen eta 2150 ikasle ingururenagana iritsi gara. Adi-adian programaren formakuntza osagarri bezala, hezkuntza arloak Bihotzetik modulua moldatu du DBH eta Batxilergoko ikasleei memoria, giza eskubideak eta etikaren kontzeptuak hurbiltzeko. Martxoan DBHko 4. mailako ikasleentzat formakuntza saio bat egin zen Legazpiko Olazabal eskolan, "Bizikidetzaren lantzen" ekimenaren baitan eta Adi-adian programarekin lankidetzan.

11 >

Ekimen honetan pauso bat gehiago eman nahi izan da, eta Baketik EHUko Hezkuntza Zientzien Fakultatearekin kolaboratu du Hezkuntza Masterrean lau saiotako modulu bat sartuz. Helburua da etorkizuneko irakasleak memoria eta giza eskubideetan hezteko. Adi-adian programa Gizarte hezkuntzako graduko giza eskubideen irakasgaiaren baitan ere egon da, biktimen testigantza zuzenen bidez.

12 >

Antzerki-forumaren proiektuari dagokionez, 27 saio egin dira guztira, 950 ikasletara iritsiz. Hauetatik 7 saio eskola jazarpena saihesteko Antzerki Forumarenak izan dira, "Sararen istorioa" antzezlanean oinarritutakoa, Gipuzkoako eskoletan eginak. Saio hauen zati handi bat Gipuzkoako hainbat udaletan abian dagoen "Bizikidetzaren lantzen" proiektuen barnean egin dira.

13 >

Gainera, "Zure azalean" antzezlanean oinarritutako 10 saio egin dira aniztasun kulturala eta familiarra sustatzeko, Nafarroako eskoletan eta Nafarroako Unibertsitatean (Gobernuko Bake eta bizikidetzaren sailarekin lankidetzan) eta Gipuzkoako eskoletan. Azken hauek otsailean Diputazioan (Bake eta bizikidetzaren sailaren lankidetzarekin) egin zen erakustaldi bati esker antolatu dira.

14 >

Horrez gain, "Eta hik zer?" lanarekin bizikidetzaren sustatzeko 10 antzerki-forum saio egin dira Nafarroako eskoletan.

15 >

Aurten, gainera, Iruñeako Gayarre Antzokiak urtero antolatzen dituen "Antzerkia eta hezkuntza" jardunaldietan parte hartu genuen antzerki forumaren eta zapalduen antzerkiaren inguruan 12 urtetan zehar egindako lana azaltzeko.

16 >

Bullying kasu bat izan zuen eskola batean Guka deituriko jarraipen prozesu bat abiatu zen. Horretarako, programaren jarraipen eta berrikuspenerako aldizkako saio batzuk proposatu ziren: alde batetik, Baketik ikasleen artean jarrera positiboak mantentzeko motibazioa lantzeko eta hasierako konpromisoak birformulatu eta jarraitzeko prozesuan bi saio antolatu ziren. Bestetik, irakasleei zuzendutako bi formakuntza tailer egin ziren.

17 >

Eduki pedagogikoak antolatzeko prozesu parte-hartzailea: "Bizikidetzaren lantzen" programaren baitan, proiektu pilotu bat antolatu da Legazpiko Domingo Agirre eskolan, bizikidetzaren inguruan zentroak dituen eduki pedagogikoak antolatu eta sistematizatzeko helburuarekin. Hiru saio egin dira klaustroarekin martxo eta ekaina bitartean, eta 2019-2020 ikasturterako ekintza-plan baten diseinua egin da, datorren ikasturtearen hasieran abian jarriko dena.